

EUSKAL INTONAZIOA

Euskal gazteen intonazioa aztertu eta mapa geolinguistikoa osatu du EUDIAk

Euskal Herriko Unibertsitateko EUDIA ikerketa taldeak “Bariazioa esaldien intonazioan” ikerketa argitaratu berri du. Ikerketa jasotzen duen liburua duela aste bi aurkeztu zuten Jon Zarate EHUKo Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak, Gurutze Ezkurdia Bilboko Hezikuntza Fakultateko dekanok, eta Aintzane Etxebarría eta Asier Romero EUDIA iker-taldeko kideek. Zazpi herrialdeetako 18 eta 27 urte bitarteko 138 gazteren oinarritzko esaldien intonazioa aztertu du taldeak. Guztira, 944 esaldi grabatu, transkribatu, etiketatu eta aztertu dituzte, eta mapa geolinguistikoa ere osatu dute.

Aintzane Etxebarría ikertaldeko kide eta Naia Eguskizarekin batera “Bariazioa esaldien intonazioan” liburua-ren editoreak ikerketaren nondik norakoen berri eman digu. Dioenez, lanaren helburua oinarritzko esaldien intonazioaren ezaugarrien azterketa sakona egitea izan da. «Horretarako, kapitulu bakoitzean oinarritzko esaldi mota ezberdinak lantzen dira. Prosodiak funtzio linguistikoa betetzen ditu eta hauek intonazioaren bidez gauzatzen dira bereziki eta enuntziatuen egitura fonologikoarekin eta sintaktikoarekin zerikusia daukate. Intonazioak azentuarekin eta tonuarekin lotura du eta batez ere bi funtzio betetzen ditu:

esaldiaren fokalizazioa gauzatzeara eta esaldien arteko bereizketak egitea». Intonazioa aldatu egiten dela dio Etxebarría, hizkuntzaren parte bat denez gero, eta bariazioa kontuan hartu beharra dagoela; «izan ere, ez da sistema zurrun bat». Horrenbestez, lan honen helburua gazteen intonazioa aztertzeara izan da, hartarako hiru aldagai kontuan izanda: generoa, ama-hizkuntza eta lurraldea. Eta aztergaia gazteen intonazioa izatearen arrazoiari dagokionez, «gazteak dira etorkizuneko profesionalak eta hori da hautatu dugun lagina lan honetarako», azaldu du Etxebarría. Hartara, Euskal Herriko zazpi

probintzietako 74 neskari eta 56 mutili “Lagunak sagarra saldu du” bezalako esaldi jakinak gaztelaniaz edo frantsesez aurkeztu zizkieten, eurek euskaratzeko. Bi aldiz esan behar zituzten grabazioan. Gazte guztiek D ereduan ikasi dute, eta gehienak unibertsitateko ikasleak ziren inkesta egin zutenean. Haien artean bi multzo bereizi zituzten ikertzaileek: euskara etxean jaso dutenena (81 neska mutil), eta txikitan eskolan jaso dutenena (47). Sei esaldi mota aztertu zituzten: adierazpen esaldia, bai/ez galderak, nor/zer galderak, hautazko galderak, oihartzun galderak eta zalantzazko galderak.

Intonazioa aztertzeke, «oinarritzko maiztasunaren kurba hartu da kontuan eta esaldien hasierako mugimendua aztertu da, sintagma bakoitzean gailur prosodikoa zein den ikusi da, esaldi osoa kontuan hartuta gailurra non dagoen ikusi da, eta esaldiaren azken silaban Foren [oinarritzko maiztasunaren] mugimendua zein den aztertu da», diosku Etxebarría.

ZENBAIT ONDORIO

Ikerketaren ondorioak zehatz azalduta daude argitaratu berri duten liburuan, oinarritzko esaldi mota bakoitzeko ondorioak barne. Aintzane Etxebarría bakan batzuen berri eman digu.


Adierazpen esaldiei dagokionez, «hasierako Fok gorantz egitea arruntena den arren, sintagma bakarreko nahiz biko esaldietan Fok beherantz egin dezake; hau Iparraldeko toki batzuetan gertatzen da batez ere, eta haxe berau gertatzen da hautazko galderetan ere. Muga-tonuari [talde prosodikoaren hasiera eta amaierako Fo mugimenduari] dagokionez, gehien agertzen dena esaldiaren bukaeraren L% da», beherantzko norabidean egiten den tonua, alegia. Berdin gertatzen da hautazko galderetan ere.

Bai/ez galderetan, «esan daiteke aldagai guztietan agertu zaizkigula alde estatistikoki esanguratsuak informatzaileen herrialdearen arabera esaldi motan, esaldiaren hasierako Fo mugimenduaren norabidean, aditzaren gailurra kokatzen deneko silaban, esaldiaren gailurra kokatzen deneko osagaian

eta muga-tonuaren hedaduraren». Informatzaileen ama hizkuntza esaldi motan estatistikoki esanguratsua dela dio; generoa, berriz, behin ere ez.

Nor/zer galderen kasuan, «esaldiaren gailurra gehienetan sintagman kokatzen da, aditzean kasu bakan batzuetan. Gehien erabiltzen den muga-tonua L% da eta informatzaileen lurraldearen eta generoaren arabera estatistikoki esanguratsua da».

Oihartzun esaldietan, «hasierako Fok gorantz egitea da arruntena, eta Iparraldeko zenbait informatzailetan beherantz egiten duela ere ikus dezakegu. Muga tonuei-dagokienez, H%



Proiektua: euskararen intonazioa-3. Datuak: <http://eudia.ehu.es/datuak>

[silaba osoan zehar goranzko norabidean egiten dena] eta LH% [goranzko eta beheranzko norabidean egiten dena] agertzen dira, baina gehien H%».

Zalantzazko galderak egitean, «ote»-ren bidez egiten direnak gero eta gutxiago direla dio, «%38,66k ez dute hau erabiltzen. Aditz aurreko sintagmaren gailurra gehienetan hirugarren silaban kokatzen da, aditzarena bigarrenean eta esaldi osoarena sintagman. Muga-tonuei dago-kienez, L% da gehien agertzen dena».

EGITURAKETA GEOLINGUISTIKOA

Ohituta gaude euskararen hizkeren ezaugarrien sailkapen mapak ikusten, batez ere ezaugarri fonetiko eta morfologikoenak, baina ez hainbeste intonazioari edo oro har prosodiari dagozkionak. EUDIAK intonazioaren mapa geolinguistikoa osatu du. «Bariazioa esaldien intonazioan» liburutik hartu dugu haren azalpena.

«Ward algoritmoa erabiliz eta sailkapena lau multzotan bananduz lortu den [aurreko orrialdeko] mapan multzo bakoitzari dagokion eremu geografikoa agertzen da». Multzo-tako banaketa egitea eta zenbat multzo egin erabakitzea iker-tzailearen hautua da, eta lan honetan lau multzotako sailka-pena hobetsi dute estatistika irizpideak kontuan izanda. Hiru eremu oso ondo bereiziak agertzen dira mapan. Mende-balde-erdialdekoa, urdinez, hiru-etatik handiena da eta 35 herri biltzen ditu. Bigarrenak, orlegiz, gehienbat ipar-mende-baldeko herriak biltzen ditu; guztira, 13 herri. Haietako bat (Arhantsusi-4) eremuz kanpo dago. Hirugarren eremua ekialdean dago eta 10 herri biltzen ditu. Honek ere ez ditu denak elkarren ondoan bilduta, haie-



Aurreko orrialdean, «Bariazioa esaldien intonazioan» liburuko 8. mapa: azter-eremuko herrien sailkapen hierarkikoa. Goian, Asier Romero eta Aintzane Etxebarria ikertaldeko kideak Iñaki Gaminderekin, 2015ean, «Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak» lana argitaratu berritan. Marisol RAMIREZ | FOKU

tako hiru ipar-mendebaldean baitaude (Miarritze-44, Mugerre-45 eta Ziburu-59).

Azkenik, beste hiru herri ere ageri dira gorritz: bat ekialdean (Maule-42) eta bi Gipuzkoan (Zegama-58 eta Lazkao-35). «Dituzten ezaugarri propioengatik gainerakoekin ondo uztartzen ez diren herriak, alegia».

Hiru eremu agertzearen gakoak datuak antolatzeko erabili duten teknika motan dagoela dio Etxebarriak, lanean agertzen den dendrograman, alegia: «Linguistikoki hiru eremu aski bereizi erakusten ditu dendrogra-

mak. Horietarik batek Hegoalde osoa hartzen du, beste biak Iparraldeko hizkerek osatzen dituzte. Hizkuntza ezaugarrietan bat etortzeak ez du esan nahi geografikoki koherenteak izan behar direnik, eta hori da gertatzen dena Iparraldeko bi eremuekin, geografikoki ez direla koherenteak».

Mapa datu prosodikoak bakarrik erabilita egin dutela gogorarazten dute ikertzaileek: «Ezin parekatu daiteke ohiko banaketekin, oso bestelako datuak eta prozedurak erabili izan direlako. Dialektologia tradizionalan egin diren banaketetan gehienik ezaugarri morfologikoak eta fonetiko-fonologikoak erabili dira, eta oso bakanak izan dira sintaktikoak eta bakarra ere ez prosodiari dagokiona». Prozedurei dagokienez, berriz, eskuzko banaketak egin izan dira orain artean ohiko dialektologian; lan honetan, al-diz, sailkapen hierarkiko automatizatuak erabili dira.

Diotenez, mapa honetako azter-eremuko hizkerak bi multzotan bereiziko balira, «bi eremu dialektal kohesionatu lortuko lirake: batetik Hegoaldeko herriak bilduko lirake eta bestetik Iparraldeko guztiak», gainerakoekin ondo uztartzen ez direnak izan ezik.

AZTERGAI UGARI

EUDIA ikerketa-taldea euskararen bariazio diatopikoa, diastratikoa nahiz diafasikoa ikertzeko sortu zen, jatorri geografikoari, ezaugarri soziolinguistikoei eta erregistroei dagokien ikerketa egiteko, alegia. Gaur egun ikerketa horretaz gainera, beste zenbait aztergai ere baditu, hala nola prosodia gaitasuna testu irakurrietan eta bat-batekoetan, eta hizkuntzaren jabekuntza. Aintzane Etxebarriak gogorarazi duenez, lehenago ere hainbat proiektu abian jarri eta amaitu ditu. Horietako bat, EDAK-CODEUS Euskara Dialektalaren Ahozko Corpora sortzea.

EUDIA ikertaldearen lanaren helburua zazpi herrialdeetako gazteen intonazioa aztertzea izan da, hartarako hiru aldagai kontuan izanda: generoa, ama hizkuntza eta lurraldea

Mapa geolinguistikoko azter-eremuko hizkerak bi multzotan bereiziko balira, bi eremu dialektal kohesionatu lortuko lirake: Hegoaldeko herriak eta Iparraldekoak